


FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua aurrera eramateko funtsezko baliabideak hurrengo hiru ataletan banatu ditugu:

Baliabide fisikoak: ezer baino lehen, Bilboko Galtzada Nagusia kalean alokatuko dugun 200 metro karratu inguruko lokala, non gure ekintza guztiak aztertu, produktuak ekoiztu eta arropa salduko dugun, baliabide fisiko nagusia izango litzateke. Ildo beretik, makineria (garbigailua, josteko makinak...) eta edukiontziak ere baliabide fisiko garrantzitsuak dira. Izan ere, edukiontziak gure hornitzaile nagusiak dira eta hauen bitartez arropa berriak sortzeko oihalak lortzen ditugu. Arrazoi horrengatik, hauek beste edukiontzietatik desberdintzea eta gure enpresaren logoa eramatea erabakigarria da.



Baliabide intelektuala eta giza baliabideak: gure denda martxan jartzeko, bazkide bakoitzaren ahalmenak, trebetasunak eta betebeharrak zehaztu behar ditugu. Ildo honetatik, Garazik arroparen diseinua egiteko ahalmena dauka, Gorkak web orrialde bat sortu eta sare sozialak kudeaketa eramango du, Ibonek kostuak eta sarrerak kudeatuko ditu Ander publizitateaz eta bezeroarentzako arretaz arduratuko da eta azkenik, Oierrek arroparekiko kontu guztiak antolatuko ditu (edukiontzietatik jaso eta garbiketa prozesua). Aurreko guztia laburbilduz, gure enpresa txikiaren antolakuntza formala zehaztea erabakigarria da. Arrazoi horrengatik, funtzio irizpide bat jarraitzen duen organigrama bat egitea erabaki dugu:



Finantza baliabideak: Jadanik adostuta daukagu gure aurrezkiek hasierako inbertsioaren %45,5 osatuko dutela: bakoitzak 2.500€ inguru jartzea aurreikusten dugu. Bankuari 15.000€tako mailegua eskatuko diogu gure lehen diru-sarrera osatzeko.



Izan ere, guztiz funtsezkoa da atal hau, gutxi gorabehera bi hilabetez, bestelako diru-sarrerarik ez ditugulako izango. Era berean, behin bezeroak gure dendan kontsumitzeko gai direnean, haien erosketengatik dirua lortzen hasiko gara.